- 2018ko udal zergak eta tasak arautuko dituen ordenantza fiskalen aldaketa (2017ko abenduaren 19an egindako Behin-behineko Kontuhartzailearen txostenean aurrikusia)

Aurrikusiak ez zeudenak eta justifikaturik dauden aldaketak, planean barneratu beharrekoak:

- 2018ko Aurrekontu Exekuzio arauaren aldaketa puntuala
- 2016-2019 urteetarako Diru-laguntzen planaren aldaketa puntuala

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Ibarra Araudi Planean aurrikusirik ez zeuden aldaketak barneratzea eta plana onartzea

BIGARRENA: Planaren onarpena eta berrikuntzak web orrialdean argitaratu beharko dira.

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ZAZPIGARRENA

7.- GALDERA ETA ERREGUAK

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita hiru direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

I.- ERANSKINA

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IBARRAKO UDALAREN JABETZA DEN EUSKAL HERRIA 18-2 ZKO ZUZKIDURA-ETXEBIZITZETAKO ZERBITZU PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua: Arautegiaren xedea eta helburu orokorra
2. artikulua: Aplikazio eremua
3. artikulua: Etxebizitzaren erabileraren epealdia
4. artikulua: Etxebizitzaren kanona eta bestelako gastuak
5. artikulua: Zuzkidura-etxebizitzetaz arduratuko diren sailak
 - 5.1: Ibarra udaleko sailak
 - 5.2: Administradorea

II. KAPITULUA: EUSKAL HERRIA 18-2 ETXEBIZITZAREN DESKRIBAPENA

6. artikulua: Eraikinaren ezaugarriak
7. artikulua: Zuzkidura-etxebizitzaren ezaugarriak

III. KAPITULUA: ZERBITZUA ESKATZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA AURKEZTU BEHARREKO ESKAEREN ARGIBIDEAK

8. artikulua: Ezinbeste bete beharreko baldintzak
9. artikulua: Eskaera non eta nola aurkeztu. Auzkeztu beharrezko dokumentazioa

IV. KAPITULUA: ERRESERBA BEREZIAK KOLEKTIBO BEREZIAK

10. artikulua: Kolektibo berezi izaera izateko baldintzak

V. KAPITULUA: AURREZ EZARTZEN DIREN DEBEKUAK

11. artikulua: Animaliak etxebizitzetan izateko debekua
12. artikulua: Etxebizitzan baimen gabe obrak egiteko debekua
13. artikulua: Bertan bizi eta sarrerak ez deklaratzeko debekua
14. artikulua: Legez kontrako edo barne erregimen arauen aurka jardun
15. artikulua: Etxebizitza erabiltzeko eskubidea eskualdatzeko debekua
16. artikulua: Kontratua amaitzean argi indarraren zerbitzua bajaran emateko debekua

VI. KAPITULUA: ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO PROZEDURA

17. artikulua: Itxaron zerrendak eta hauen funtzionamendua
18. artikulua: Esleipen prozedura

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

19. artikulua: Kontratua

VII. KAPITULUA: ZUZKIDURA-ETXEBIZITZETAKO ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

- 20. artikulua: Kanonaren ordainketa (etxebizitza eta garajearena)
- 21. artikulua: Bermea ezartzeko betebeharra
- 22. artikulua: Parte-hartze kuotaren ordainketa
- 23. artikulua: Etxebizitzaren erabileratik eratorritako zerbitzuen ordainketak egiteko betebeharra
- 24. artikulua: Aseguru poliza izenpetzeko betebeharra
- 25. artikulua: Etxebizitzaren instalazio orokorrak eta elementuen zaintza
- 26. artikulua: Etxebizitzan beharrezko obrak eta sarrera baimentzea
- 27. artikulua: Etxebizitza hustu eta egoki uztea kontratua amaitzerakoan
- 28. artikulua: Etxebizitzan bizi diren pertsonan denen errentak aurkeztea
- 29. artikulua: Etxebizitzan suerta daitezkeen egoera berri eta berezi guztien berri ematea

VIII. KAPITULUA: ZUZKIDURA-ETXEBIZITZAKO ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

- 30. artikulua: Etxebizitza, garajea eta trastelekua erabiltzeko eskubide osoa

IX. KAPITULUA: KALERATZEKO ARRAZOIAK ETA KALERATZE PROZEDURA

- 31. artikulua: Kaleratzeko arrazoiak
- 32. artikulua: Kaleratze prozesua

XIII. KAPITULUA: DATUEN BABESA

XIV. KAPITULUA: XEDAPEN INDARGABETZAILEA

XV. KAPITULUA: XEDAPEN IRAGANKORRA

XVI. KAPITULUA: AZKEN XEDAPENA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ZIOEN AZALPENA

Azken urteotako testuinguru soziala kontuan izanik, etxebizitzaren garestitzea eta bertara sarbidea izateko aukera da Euskal Autonomia Erdikegoko udalerrri guztietan aurkitzen ari garen arazo larri eta orokorrenetakoa.

Ibarrako udala jakitun da etxebizitza duin eta egoki baterako sarbidea, batez ere gazteen aldetik, eskubide soziala eta bizitza ekonomiko, politiko eta sozialaren ardatz dela eta horregatik, erantzun egokia eman behar dio etxebizitza arloan dagoen eskaera sozialari.

Egungo egoera sozioekonomikoak higiezin merkatua kaltetu du eta etxebizitza libreari nahiz babestuari eragiten die. Horregatik, beharrezkoa da aukera zabalagoa sortzea, errendamendu sozialak (zuzkidura-etxebizitzak alegia) eskainiz. Honela, Ibarrako udalak udalerrriaren errealitate eta behar bati erantzun bat eman nahi dio Euskal Herria 18-2 udal etxebizitza gazteen zerbitzura jarritz.

2013ko otsailaren 6an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 25 zenbakidun alean, Ibarrako Udaleko zuzkidura-etxebizitzaren zerbitzu publikoak arautzen dituen ordenantza argitaratu zen. 2013ko apirilaren 5an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldiz, 64 zenbakidun alean, Ibarrako AASS etako 1.1 JUko Euskal Herria 18-2ko zuzkidura-etxebizitzetako zerbitzu publikoak arautzen dituen erreglamendua eta deialdiaren oinarriak argitaratu ziren. Ikusita Ibarra zuzkidura-eraikin bakarra dagoela eta gai honetan egun indarrean dugun araudiak berrikuspen sakon bat behar duela (azken 5 urteetako esperientzian oinarriturik) Ibarrako udalak egoki deritzo bi arau hauen testu bateratu bakarra egitea.

Testu bateratu honekin (aipatuko Ordenantza eta Erreglamendua indargabetu eta egungo Erreglamendua indarrean jarriko litzateke), Ibarrako udalaren jabetzapean dagoen Euskal Herria 18-2ko zuzkidura-etxebizitzetako zerbitzu publikoen sistema arautu nahi da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1.- Artikulua: Arautegiaren xedea eta helburu orokorrak

1.1.- Erreglamendu honen xede da, Ibarra udalak bere jabetzapean dagoen Euskal Herria 18-2ko eraikinean dituen zuzkidura-etxebizitzaren erabilera, baldintzak, erabiliko diren prozedurak eta erabiltzaile izango diren gazteen arteko bizikidetzaren egokia arautzea.

1.2.- Etxebizitza hauen helburu orokorrak honako hauek dira:

- a. Ibarra udalaren gazteei, aldi baterako, gurasoengandik independizatzeko aukera ematea eta bide batez beraien lehen etxebizitza izateko aukera sustatzea.
- b. Gazteez gain beste kolektibo batzuei ere (adineko pertsona autonomiadunei edo baldintza kaskarretan bizi diren sektorei alegia) etxebizitza hauetan bizi daitezen aukera zabaltzea (beti ere gazteei lehentasuna emango zaie eta soilik etxebizitzak hutsik daudenean aztertuko da aukera hau).

2.- Artikulua: Aplikazio eremua

Erreglamendu honen aplikazio eremua Ibarra udalerrian kokaturik dagoen Euskal Herria 18-2 erainkina izango da.

3.- Artikulua: Etxebizitzaren erabileraren epealdia

3.1.- Etxebizitzaren errentamendu eskubidea 5 urtetarako izango da eta ezingo da inolaz ere epealdi hau luzatu.

3.2.- Gehieneko 5 urteko kontratuaren epea amaitu ondoren maizterrak izan diren gazteak ezingo dute etxebizitzaren erabilera egiteko eskaera berririk aurkeztu.

4.- Artikulua: Etxebizitzaren kanona eta bestelako gastuak

4.1.- Etxebizitzaren kanona:

4.1.1.- Etxebizitza bakoitzeko (bere trastelekua eta garajea barne) ordaindu beharreko hileko kanona kalkulatzeko pertsonaren edo bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak kontuan hartuko dira. Kopuru hau urtero eguneratuko da KPIa kontuan hartuz. Kanonean barneratuko da derrigorrez:

- Etxebizitzaren kostua
- Trastelekuaren kostua

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Garajearen kostua

4.1.2.- Horretarako, Ibarra udalak urtean behin ofizioz kanon honen berrikuspena burutuko du, jasan diren diru-sarreraren aldaketak berrikusiz. Berrikuspena bi motatakoa izan daiteke:

1. Derrigorrezko berrikuspena ofizioz urtean behin udalak egiten duena: uztailan burutuko da berrikuspen hau, errenta aitortzea amaitzen denean alegia.
2. Esleipendunak horrela eskatzen duenean egiten den berrikuspena: esleipendunak urtean behin (soilik behin eska dezake) bere egoera ekomikoaren aldaketen ondorioz udalari kanonaren berrikuspena egiteko eskaera egin dezake.

4.1.3.- Maizterrak obligazioa izango du etxebizitzan dauden bizikide guztien errenten justifikazioa aurkezteko. Ikuskapen baten ondorioz, etxebizitzan aitortu gabeko errenta gehiago dagoela ikusten bada, Ibarra udalak aukera izango du errenta eskubidea ezeztatzeke eta etxebizitza uzteko espedientea irekiko du.

4.2.- Eraikinarekin eta komunitatearekin loturiko gastu finkoak:

Komunitatearen gastu orokorrak kanonaren bidez ordainduko dira hilerok, hau da, kanona etxebizitza eta garajearen alokairua eta gastu orokorrak osatuko dute.

Kuota ondorengo 3 ataletan azalduko diren kontzeptuei dagozkien fakturak ordaintzeko izango da:

4.2.1.- Komunitatearekin loturiko gastuak: Berokuntza instalazioa (Euskal Herria 18-1ak eta 18-2ak partekatzen dute)

Euskal Herria 18-2: fakturen % 52,05

- Gas fakturaren zati finkoa.
- Ur fakturaren zati finkoa
- Iberdrola galdara
- Galdararen mantentzea (Ondoan)
- Galdararen matxura txikiak, mantentzearekin loturikoak.
- Garajeen garbiketa
- Euskaltel ADSL

4.2.2- Ezkaratzarekin loturiko gastuak:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Euskal Herria 18-2: fakturen %100

- Etxebizitzetako aireztapenaren mantentzea (Ondoan)
- Su-itzalgailuen mantentzea
- Iberdrola igogailua
- Igogailuaren mantentzea (Orona)
- Beste konponketa batzuk (zerraila, antena, bonbillak aldatu...)
- Garbiketa enpresarekin kontratua eskaratza eta eskailburuak garbitzeko.
- Administrazio zerbitzua
- Iberdrola RITI (telekomunikazioko gela)

4.2.3.- Garajeei dagozkien gastuak: Euskal Herria 18-1ak eta 18-2ak partekatzen dituzte.

Euskal Herria 18-2: fakturen % 81,16

- Iberdrola
- Gipuzkoako urak (suaren kontrako instalazioa)
- Aireztapen eta suaren detekzioaren mantentzea (Ondoan)
- Garbiketa enpresarekin kontratua sotoak garbitzeko
- Konponketak

4.3.- Kontsumok-gastuak:

Kontsumo-gastuak etxebizitzaren maizterrak ordaindu behar ditu: Partekatuta dauden zerbitzuak (berokuntza, ur beroa, ur hotza) eta norberak bere etxebizitzan erabili edo kontratatzen dituen beste edozein zerbitzuak (argindarra, telefonoa, internet...).

4.3.1.- Zerbitzu partekatuak: berokuntza, ur beroa eta ur hotza

Eraikinak baldin bakarra eta ur hartune bakarra dauzka. Norberaren berokuntza, ur beroa eta ur hotzaren kontsumoak neurtu ahal izateko hiru barne-kontagailu dauzka etxebizitza bakoitzak igogailuaren ondoko armairuan. Kontagailu horien irakurketak ITACE sistemak (Webserver, teleneurketa eta telegestio sistema) jasotzen ditu eta etxebizitza bakoitzaren kontsumoen arabera fakturak sortzen ditu. Faktura horietan hiru kontzeptu azalduko dira beraz: berokuntza, ur beroa eta ur hotza.

Hiru kontzeptu horien prezioak aldakorrak izan daitezke hornitzaileen prezioak (Naturgas edo Endesa, Gipuzkoako Urak...) aldakorrak diren heinean.

4.3.2.- Bakarkako kontsumo zerbitzuak:

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Norberak bere etxebizitzan erabili edo kontratatzen dituen beste edozein zerbitzuak (argindarra, telefonoa, internet...).

Argindarrari dagokionez, maizter aldaketa egiten den bakoitzean, energei enpresei alta berriak ordaindu behar ez izateko, aurreko maizterraren kontratuaren TITULARTASUN ALDAKETA egin beharko du maizter berriak. Beraz, etxea uzterakoan EZ ZAIO BAJA EMANGO argindarraren kontratuari.

5.- Artikulua: Zuzkidura-etxebizitzetaz arduratuko diren departamentuak

5.1.- Ibarra udala:

5.1.1.- Gizarte Zerbitzuak:

- Etxebizitzetan bizitzeko eskaerak jaso
- Etxebizitzaren kanonaren kalkulua
- Kanonen errebisioak
- Etxebizitzak uzteko eskaerak jaso
- Ibarra udala eta maizterren arteko interlokuzioa (kanona, etxebizitzak uztea, etxebizitzan altak eta egoera aldaketak)

Matxurak, konpocketak eta eraikineko arazoak Administradoreak kudeatuko ditu

5.1.2.- Hirigintza:

- Eraikinaren eta bere elementu amankomunen egoeraren jarraipena eta konponketa, bereziki egitura, inpermeabilizazio eta segurtasunarekin zerikusia duten elementuena.

5.1.3.- Obra eta zerbitzuak:

- Etxebizitza uzteko momentuan etxebizitzaren, garajearen eta trastelekuaren ikuskaritza.
- Berokuntza, ur bero eta ur hotzaren instalazioaren jarraipena eta prezioen eguneratzea.
- Etxebizitzen konponketak (maizterrari ez dagozkionak)
- Eraikinaren eta bere elementu amankomunen egoeraren jarraipena eta konponketa txikiak.

5.1.4.- Idazkaritza:

- Kontratuen egikaritza

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Aholkularitza juridikoa
- Zehapen prozedurak izapidetu
- Prozedurak abian jarri.

5.1.5.- Kontuhartzailletza:

- Kanonaren konbrantza
- Fiantzak jaso eta fiantzen itzulketa
- Erreziboen ordainketak
- Zorren jakinarazpenak
- Prozedura exekutiboa izapidetu ordainketa ezak daudenean.

5.2.- Administradorea:

- Eraikinaren erabilerarekin lotutako gaiekin, udalaren eta maizterren arteko bitartekaria.
- Maizterren komunitatearen administrazioa, orokorrean
- Hornitzaileen eta mantentze zerbitzuen fakturen ordainketa
- Eraikinaren erabileraren ondorioz sortzen diren konponketa txikiak eta mantentze lanak kudeatu eta fakturak ordaindu.

II. KAPITULUA: EUSKAL HERRIA 18-2 ERAIKINAREN DESKRIBAPENA

6. Artikulua: Eraikinaren ezaugarriak

6.1.- Zuzkidura-etxebizitzak Euskal Herria 18-2n dauden eta 32 apartamentuz osatzen da.

6.1.1.- Solairu bakoitzeko 5 etxebizitzek hegoaldeko orientazioa dute eta beste 4k iparraldeko orientazioa.

6.2.- Euskal Herria kalearen atzean dagoen Beheko bide kaletik etxebizitzetara loturiko garajeetako sarrerak daude, bat solairu bakoitzeko.

6.3.- Trasteleku gehienak 2. sotoan kokatzen dira.

6.4.- Garajeetara eta trastelekuetara joateko etxebizitzetako igogailua erabili nahi izanez gero, ezkaratzeko giltza erabiltzea ezinbestekoa da.

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

6.5.- Eraikin horretako behe solairuan lokal independente bat dago.

6.6.- Eraikinaren berezitasuna da ondoan dagoen eraikinarekin, Euskal Herria 18-1arekin, zenbait elementu konpartitza: galdara eta garajeetako sarbideak eta instalazioak.

6.6.1.- Elementu horien gastu banaketa Euskal Herria 18-1 eta Euskal Herria 18-2 komunitateen artean egiten da.

7.- Artikulua: Zuzkidura-etxebizitzaren ezaugarriak.

7.1.- Etxebizitza guztiek dute egongela-jangela eta sukaldea, logela bat, komuna eta terraza edo balkoia.

7.1.1.- Sukaldea elektrogailuekin ekipatuta dago.

7.1.2.- Etxebizitzak altzairurik gabe eskaintzen dira.

7.2.- Etxebizitza bakoitza trasteleku eta aparkaleku plaza batekin alokatuko da.

7.3.- Mugikortasun mugatuko pertsonentzat komuna egokituta dute lehen solairuko C eta bigarren solairuko D etxebizitzek.

7.4.- Seme-alabak edo adinekoak beren kargura dituztenentzako bi logeletako bi apartamentu daude: hirugarren solairuko C eta laugarren solairuko D etxebizitzak.

Lehenengo eranskinean apartamentu baten argazkiak eta bi etxebizitza tipoen planoak jaso dira, bata hegoaldera eta bestea iparraldera ematen dutenak.

Logela bakarreko Zuzkidura-etxebizitzak

<i>Solairua</i> <i>Nº de planta</i>	<i>Zehaztapena</i> <i>Identificación</i>	<i>Az.</i> <i>erabilgarria</i> <i>itxia</i> <i>Sup. útil</i> <i>cerrada</i>	<i>Terraza</i>	<i>Eraik.</i> <i>azalera</i> <i>Sup.</i> <i>const.</i>	<i>Trasteleku</i> <i>erantsia</i> <i>Trastero</i> <i>vinculado</i>	<i>Aparkalekua</i>
Lehenengoa / Primera	AD-1ºA	34,93	3.26	43,62	T32	pl nº 25
	AD-1ºB	34,81	3.26	42,85	T1	nº3
	AD-1ºD	34,72	7.18	45,12	T2	nº4



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	AD-1ºE	33,74	7.54	43,66	T3	nº5
	AD-1ºF	33,74	7.54	43,66	T4	nº6
	AD-1ºG	34,14	7.88	45,15	T5	nº7
Bigarrena / Segunda	AD-2ºA	34,93	6.52	43,62	T6	nº8
	AD-2ºB	34,81	3.26	42,78	T7	nº9
	AD-2ºC	38,09	3.26	47,02	T8	nº10
	AD-2ºE	33,74	7.54	43,66	T9	nº11
	AD-2ºF	33,74	7.54	43,66	T10	nº12
	AD-2ºG	34,27	7.12	44,76	T11	nº13
Hirugarrena / Tercera	AD-3ºA	34,93	3.26	42,90	T12	nº14
	AD-3ºB	34,81	3.26	42,78	T13	nº15
	AD-3ºD	34,72	7.12	45,12	T14	nº18
	AD-3ºE	33,74	7.54	43,66	T15	nº19
	AD-3ºF	33,74	7.54	43,66	T16	nº20
	AD-3ºG	34,14	7.88	45,15	T17	nº21
Laugarrena / Cuarta	AD-4ºA	34,93	3.26	43,62	T18	nº22
	AD-4ºB	34,81	3.26	42,78	T19	nº23
	AD-4ºC	38,09	3.26	47,02	T20	nº24



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	AD-4ºE	33,75	7.54	43,66	T21	nº26
	AD-4ºF	33,74	7.54	43,66	T22	nº27
	AD-4ºG	34,27	7.12	44,76	T23	nº28
Atikoa / Ático	AD-Ático A	33,51	29.02	58,34	T24	nº29
	AD-Ático B	32,28	23.88	52,62	T25	nº30
	AD-Ático C	32,17	12.00	44,18	T26	nº31
	AD-Ático D	32,47	10.76	45,46	T27	nº33

Mugikortasun mugatuko pertsonentzat egokituriko etxebizitzak

<i>Solairua</i> <i>Nº de planta</i>	<i>Zehaztapena</i> <i>Identificación</i>	<i>Az. erabilgarria itxia</i> <i>Sup. útil cerrada</i>	<i>Terraza</i>	<i>Eraik. azalera</i> <i>Sup. const.</i>	<i>Trasteleku erantsia</i> <i>Trastero vinculado</i>	<i>Aparkalekua</i>
Lehena / Primera	AD-1ºC	40,14	3.26	49,42	T28	pl nº 17
Bigarrena / Segunda	AD-2ºD	42.05	7.86	53,68	T30	pl nº 16

Seme-alabak edo adinekoak beren kargura dituztenentzako etxebizitzak

<i>Solairua</i> <i>Nº de planta</i>	<i>Zehaztapena</i> <i>Identificación</i>	<i>Az. erabilgarria itxia</i> <i>Sup. útil</i>	<i>Terraza</i>	<i>Eraik. azalera</i> <i>Sup.</i>	<i>Trasteleku erantsia</i> <i>Trastero</i>	<i>Aparkalekua</i>
----------------------------------------	---------------------------------------------	---------------------------------------------------	----------------	--------------------------------------	-----------------------------------------------	--------------------

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

		<i>cerrada</i>		const.	<i>vinculado</i>	
Hirugarrena / Tercera	AD-3°C	45,48	3.26	55,19	T29	nº1
Laugarrena / Cuarta	AD-4°D	41,82	7.88	53.68	T31	nº2

Zuzkidura-etxebizitza bakoitzari trasteleku bat esleituko zaio, etxebizitzari lotua.
T28, T30 eta T32 trastelekuetara 17, 16 eta 25 zk.dun garajeetatik sartzen da.

III. KAPITULUA: ZERBITZUA ESKATZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA AURKEZTU BEHARREKO ESKAEREN ARGIBIDEAK

8.- Artikulua: Ezinbestean bete beharreko baldintzak

- 8.1.- Ibarra herrian erroldaturik egotea, derrigorrezkoa izango da, honako baldintzetan:
- 8.1.a: Azken urte osoan Ibarra erroldaturik izatea eta ohiko etxebizitza bertan izatea.
 - 8.1.b: Azken bost urteetatik gutxienez hiru urtetan Ibarra erroldatua egotea eta ohiko etxebizitza bertan izatea.
- 8.2.- Behin etxebizitzaren maizterra izendatzen denean, honek etxebizitza ohiko etxebizitza bezala erabili beharko du eta bertan erroldatzea derrigorrezkoa izango da.
- 8.3.- Ezinbesteko adina: 18 urte beteak izatea eta 36 urte bete gabe izatea, esleipena egin zaiola erabakitzen duen Alkate Dekretuaren egunerako.
- 8.4.- Kontratatzeko gaitasuna izatea
- 8.5.- Bizikideen diru-sarrerak guztira urtean 3.000 euro eta 39.000 euro bitartekoak izatea.

9.- Artikulua: Eskaeran non eta nola aurkeztu. Aurkeztu beharrezko dokumentazioa

- 9.1.- Eskaerak Ibarra udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira eta sarrera zenbakia eman beharko zaie (sarrera-erregistro zenbakia kontuan hartuko da itxaron zerrendetan lehentasuna ezartzeko orduan).

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

9.2.- Eskaera motak:

9.2.1.- Logela bakarreko etxebizitzentzako eskaera

9.2.2.- Bi logeletarako etxebizitzentzako eskaera (kolektibo bereziak) (ikusl 10 art)

9.2.3.- Mugikortasun mugatuko pertsonentzat egokitutako etxebizitzentzako eskaera

9.3.- Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

9.3.1.- Ibarra udalak jarritako eredu formalizatua eta sinatua

9.3.2.- Eskatzailearen NANaren fotokopia.

9.4.- Eskaerak aurkeztu ondoren, esleipena egiteko (Ibarra udalak jakinaraziko dio eskatzaileari) honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

9.4.1- Bizikideen Pertsona Fisikoen Gaineko Errentaren azken aitortzenen kopiak. Pertsona fisikoen Gaineko Errentaren aitortzena egitera behartuta ez daudenek legeak onartzen duen edozein modutara egiazta ditzakete beren diru-sarrerak (Ogasunaren ziurtagiria non obligatorik ez duela adierazten den eta eskatzen diren diru-sarrera gutxiengoak ingratsen dituela egiaztatzen duen dokumentua).

9.4.2.- Etxebizitzan biziko diren familia unitateko kideen NANaren fotokopia.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IV. KAPITULUA: ERRESERBA BEREZIAK KOLEKTIBO BEREZIAK

10.- Artikulua: Kolektibo berezi izaera izateko baldintzak

10.1.- Erreserba bereziko etxebizitza motak eta hauek esleitzeko bete behar diren baldintzak:

10.1.1.- Mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonentzako 1C eta 2D etxebizitzaren erreserba

10.1.1.a- Mugikortasun mugatu iraunkorra izatea: 7 eta 15 puntu izatea Gipuzkoako Foru Aldundiak igortzen duen ziurtagirian (gurpil-aulkia edo 2 bastoi) eta ziurtagiri hau aurkeztu beharko da 9. artikuluko dokumentuez gain.

10.1.2- Bere kargura adingabeak edo adinekoak dituzten gazteentzako 3C eta 4D etxebizitzaren erreserba

10.1.2.a: Kontratuaren indarraldian adintxiki edo adineko pertsonaren tutoretza galtzen badute erreserbarako eskubidea galdu egingo da.

10.1.2.b: Eskaera egiteko unean adingabeak edo adinekoen kargua dutela egiaztatzen duten gazteen kasuetan lehentasuna izango dute senar-emazte edo izatezko bikoteak direnak.

10.2.- Aipaturiko etxebizitza hauek kolektibo berezientzako erreserbatuak geldituko dira baina inolako eskaerarik ez badago edo eskarek ez badituzte baldintzak betetzen, beste etxebizitzak bezala esleitu ahal izango dira. Baina, esleipen hauek baldintzaturik geldituko dira erreserbarako eskubidea duen gazteren batek eskaera aurkeztuko balu, bertan dagoen maizterrak etxebizitza utzi egin beharko du.

10.2.1.- Egoera hau kontratuan adieraziko da eta alderdiak horrela espreski onartuko beharko du (erabilera baldintzatua dagoela jakingo du eta onartuko du)

10.2.2.- Erreserba bereziko etxea hilabeteko epean utzi beharko du

10.2.3.- Erreserba bereziko kolektibo barnean ez dagoen erabiltzaileak, etxebizitza utzi behar duela agintzean derrigortua dago etxebizitza uztera eta ezingo dio Ibarra udalari inolako erantzunkizunik eskatu.

10.2.4.- Ibarra udalak konpromezua hartzen du hutsik gelditzen den hurrengo etxebizitza kanporatua izan den maizterren alde erreserba egiteko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

10.2.4.a- Ibarra udalak ez ditu beragain hartuko erreserba bereziko etxebizitza utzi behar izaten den unetik etxebizitza berri bat hustu artean erabiltzaileak egin beharreko gastuak (beste etxe bat alokatu, objetuen garraioen kostua, leku aldatze gastuak ...).

V. KAPITULUA: AURREZ EZARTZEN DIREN DEBEKUAK

11.- Artikulua: Animaliak etxebizitzetan izateko debekua

Bizikidetzan bermatzeko eta eraikineko elementu, eta ondasun komunak egoki mantentze aldera, debekaturik dago etxebizitzetan animaliak izatea.

12.- Artikulua: Etxebizitzan baimen gabe obrak egiteko debekua

12.1.- Etxebizitza bateko maizterrak ezingo ditu apartamentuko elementu arkitektonikoak, instalazioak edo zerbitzuak aldatu.

12.2.- Etxeko gainerako elementuetan ezingo dira aldaketarik egin eta, zerbait konpondu edo obraren bat egin beharko litzatekeela atzematen bada, Administrazioarek jakineraziko zaio eta honek bideratuko du.

12.3.- Baimendu gabeko obrak burutzeak zehapena ezartzea dakar eta etxebizitza lehen zegoen moduan uzteko behar diren gastu guztien ordainketa burutu beharko du maizterrak.

12.4.- Ibarra udalak edozein unetan ikuskatu ahal izango ditu etxebizitzak eta ikuskaritza egiten ez uzteak Ibarra udalak egoki dagokion neurriak hartzea ekar dezake.

13.- Artikulua: Bertan bizi eta sarrerak ez deklaratzeko debekua

13.1.- Maizterraz gain etxebizitza horretan modu iraunkorrean pertsonaren bat bizi bada (diru sarrerak dituen pertsona izan behar da), maizterrak obligazioa izango du Ibarra udalari egoera horren berri emateko dagokion kanonaren kalkulua berriz egin dezan.

13.2.- Debekaturik dago kanonaren kalkulua egiteko aurkeztu den diru sarreraren maizterraz gain beste diru sarrerak dituen pertsonarik bizitzea.

13.3.- Egoera honen berri ez emateak Ibarra udalak maizterra etxebizitzatik kanporatzea ekar dezake (Tokiko Gobernu Batzordeak erabakiko du: iruzurraren denbora eta iruzurra egiteko doloa kontuan hartuz. Erabaki arrazoitua erabiltzaileari jakinarazi zaio eta 2 egunetako entzun aldia eman ondoren erabaki tinkoa hartuko da).

14.- Artikulua: Legez kontrako edo barne erregimen arauen aurka jarduteko debekua

14.1.- Etxebizitza erabiltzeko eskubidea duen maizterrak, bertan edo eraikinaren beste edozein lekutan, ezin du legez kontrako, Ibarra udalak edo barne-erregimeneko arauak debekatutako jarduerarik burutu; halaber ezin du finka kaltetu dezakeen



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

jarduerarik burutu, ez eta kaltegarriak edo arriskutsuak izateagatik ingurumen arloko legeriak edo udal ordenantzek sailkatutako bestelako jarduerarik ere.

14.2.- Bizikidetzaren xehetasunak, eta zerbitzu eta elementu komunen erabilera erregulatzeko, legeak eta Ibarra udalak ezarritako muga eta baldintzak bete beharko dituzte.

14.3.- Etxebizitzetako maizterren batek debekaturiko, ez egokia den edo bizikidetzaz ez errespetatuz jardueraren bat burutzen badu; beste maizterrek Ertzaintzan salatu ahal izango dute eta egoera honen berri administratzaileari jakinaraziko zaio Ibarra udala jakinaren gainean egon dadin eta egoera konpontzeko egoki den erabakia har dezan.

15.- Artikulua: Etxebizitza erabiltzeko eskubidea eskualdatzeko debekua

Etxebizitza erabiltzeko eskubidea maizterra izango den pertsona edo pertsonen aldekoa izango eta debekaturik dago eskubide hori eskualdatu edo besterentzea (ezingo da beste pertsona baten alde inolako arrendamendu kontraturik egin).

16.- Artikulua: Kontratua amaitzean argindarraren zerbitzuari baja emateko debekua

16.1.- Argindarraren kasuan, etxebizitza uzterakoan, maizterrak ezingo dio zerbitzuari baxarik eman titulartasun aldaketa formalizatu arte.

16.2.- Zerbitzuari baja ematen zaion kasuan, alta berria egiteak dakarren kostua ez betetzea egin duen maizterren fidantzatik deskontatuko da.

16.3.- Etxebizitzaren alokairu kontratua amaitzen denetik argindarraren titulartasun aldaketa egin arteko gastuen kargu udala egingo da.

VI. KAPITULUA: ETXEBIZITZA ESLEITZEKO PROZEDURA

17.- Artikulua: Itxaron zerrendak eta hauen funtzionamendua

17.1.- Itxaron zerrenda irekia izango da, eskatzaileak edozein unetan eskaera Ibarra udal erregistroko sarreran egin dezake.

17.2.- Eskatzaileen artean ez da inolako zozketarik egingo. Lehentasuna erregistro zenbakiak markatuko du eta lehentasun horren arabera etxebizitzak esleituko dira.

17.3.- Aurreko prozesuan sorturiko itxaron zerrendan dauden eskatzaileak kontuan hartuko dira eta lehentasuna izango dute. Aurreko zerrenda amaitzean, erregistro zenbakiaren arabera esleituko dira etxebizitzak.

18.- Artikulua: Esleipen prozedura



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

18.1.- Interesdunak itxaron zerrendaren ordena jarraituz deituak izango dira eta 5 egunetako epean etxebizitzan sartzeko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen dituzten agiri eguneratuak aurkeztu beharko dituzte.

18.2.- Ibarra udalak aurkezturiko agiriak aztertuko ditu eta dena egoki badago Alkate Dekretu bidez etxebizitzaren esleipena eskatzailearen alde egingo du.

18.3.- Aurkezturiko agiriak egoki ez badaude (zuzentzeko 2 egun eman ondoren) edo baldintzak betetzen ez badira, Ibarra udalak eskaerari ezezkoa erantzungo dio (erantzuna arrazoitu egingo da).

18.4.- Etxebizitzaren esleipena jasotzean, eskatzaileak etxebizitzari uko egin nahi izanez gero Ibarra udalaren erregistroan uko egiteko borondatea agertzen duen idazki bat aurkeztu beharko du.

18.5.- Eskatzaileak Ibarra udalak eskeinitako 2 etxebizitzari uko eginez gero, ezin izango du berriz etxebizitza hauen esleipenerako eskaerarik egin.

19.- Artikulua: Kontratua

19.1.- Esleipenaren jakinarazpena izan eta hurrengo 5 egunetan arrendamendu kontratua sinatu beharko da.

19.2.- Arrendamendu kontratuan, Ibarra udalaren jabetza den Euskal Herria 18-2ko zuzkidura- etxebizitzetako zerbitzu publikoa arautzen duen erreglamendua barneratuko da eta bertan araututakoa onartuko beharko du maizterrak.

VII. KAPITULUA: ZUZKIDURAZKO-ETXEBIZITZETAKO ERABILTZAILAILEEN BETEBEHARRAK

20.- Artikulua: Kanonaren ordainketa (etxebizitza eta garajearena) egiteko betebeharra

20.1.- Izenpetuko duten kontratuan ezarritako prezioa edo errenta ordaindu beharko du. Etxebizitzaren eta garajearen errenta batera ordainduko dira.

20.1.- Gastu orokorrei dagokien kuota finkoa ordaindu beharko du, garajeena barne (4.2. art.). Gastu hori kanonaren bidez ordainduko du maizterrak. Hau da, alokairuari gastu orokorren kuota finkoa gehituko zaio.

20.2.- Maizterrak kanonaren ordainketa (alokairua eta gastu orokorrak) derrigorrez helbideratu beharko du.

20.3.- Ordainketa egiten ez den kasuan

20.3.1.- Borondatezko epe bat aurreikusten da, hilaren 10artekoa izango dena.

Epe honen barruan ordainketa egin beharko da bestela berandutza egoera hasiko da.

20.3.1.1.- Hilaren 10^a jai eguna bada, borondatezko epe amaiera hurrengo lan egunerarte luzatzen da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

20.3.2.- % 5eko errekaragoaren aplikazioa

20.3.2.1.- Automatikoki zorraren %5^a aplikatuko zaio borondatezko epean ordainketa egin ez duen orori (borondatezko epea amaitu eta hurrengo egunean jada berandutza egoeran dago zorduna)

20.3.2.2.- Errekargoaren aplikazioa automatikoki egingo da eta ez da Ibarra udaletik berandutza egotearen jakinarazpenik burutuko.

20.3.3.- % 15eko errekaragoaren aplikazioa

20.3.3.1.- Borondatezko epea pasa ondoren, itzulketak jasotzeko denbora itxaron ondoren zorra exekutibara igorriko da eta automatikoki %15eko errekaragoa aplikatuko zaio

20.3.3.2.- Kasu honetan premiamenduzko probidentzia bidez jakinaraziko zaio zordunari eta egoeraren berri emango.

a.- Premiamenduzko probidentzia ordainagiri bezala erabil daiteke

b.- Premiamenduzko probidentziarekin jakinaraziko da berau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hilabete bat dutela ordainketa egiteko.

c.- Premiamenduzko probidentzia jakinarazteko saiakera egitean jakinarazi ezin den kasuetan (ez duelako inork sinatzen) zorraren izatea GAOn argitaratuko da, eta ondoren BOEn. Aldizkari ofizialean argitaratu eta 15 egunetan zorduna ez bada udalarekin harremanetan jartzen jakinarazitzat emango da probidentzia, eta prozedura exekutiboak aurrera egingo du.

20.3.4.- % 20ko errekaragoaren aplikazioa

20.3.4.1.- %15eko errekaraguarekin ordainketa egiteko epea amaitzean ordaintzen ez den kasuan hurrengo egunean bertan %20eko errekaragoa ezarriko zaio zorrari.

20.3.5.- Epe guztiak agortzean, espedientearen jarraipena eta egikaritzza Ogasunari igorriko zaizkio eta Ogasuna izango da zorraren ordainketa erreklamatu duen organoa.

20.4 Errenta aitortzea urtero aurkeztu beharko da uztailean zehar.

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

21.- Artikulua: Bermea ezartzeko betebeharra

21.1.- Kontratua sinatu aurretik, kanon finkoaren (etxebizitza eta garajearen kuotaren) 2 hilabeteko kuota aurreratu beharko da berme gisa.

21.2.- Berme hau Ibarra udalak gordailuan izango du. Kontratua amaitzean, maizterrak bermearen itzulera eskatu beharko du idatziz eta inolako ezusteko edo kalterik ez badago, Ibarra udalak itzuli egingo du.

22.- Artikulua: Etxebizitzaren erabileratik eratorritako zerbitzuen ordainketak egiteko betebeharra

22.1.- Ezarritako kuota finkoarekin (kanonaren barruan dagoena) gastu orokorrak ordainduko dira, eraikinaren zerbitzuei behar bezala erantzuteko (ikus 4.2. art.).

22.2.- Ezarritako kuota finkoarekin (kanonaren barruan dagoena), administradorearen zerbitzua ordainduko da, eraikinaren zerbitzuei behar bezala erantzuteko (ikus 4.2. art.).

22.3.- Kontsumo gastuak etxebizitzaren maizterrak ordaindu behar ditu: Partekatuta dauden zerbitzuak (berokuntza, ur beroa, ur hotza) eta norberak bere etxebizitzetan erabili edo kontratatzen dituen beste edozein zerbitzuak (argindarra, telefonoa, internet...). (ikus 4.3 art.)

22.4.- Partekatuta dauden zerbitzuei dagokien faktura (berokuntza, ur beroa, ur hotza) posta elektronikoz bidaliko dira hilabete bakoitzaren lehen astean (posta elektronikoa ez duenari buzoian utziko zaio).

22.5.- Hornitzaileen fakturak (gas ura, argindarra...), mantentze zerbitzuen fakturak (Ondoa, Orona...) eta ezohiko gastuak administradoreak kudeatuko ditu. Fakturei aurre egin ahal izateko eta eraikina mantendu eta kontserbatzeko eta ezohiko gastuen finantziazioa bermatzeko, komunitatearen kontuan nahiko diru egon behar du beti. Hori bermatzeko, gastu orokorrak ordaintzeko zehaztutako kuota finkoa udalak kobratuko du kanonaren bidez, eta hilerro, komunitateak daukan kontuan sartuko du.

22.6.- Urtero, urtea amaitzean gastuen eta dirusarreraren balantzea egingo da eta ikusiko balitz jarritako dirua soberan dagoela, udalak diru hori gorde eta ezohikoak diren mantentze lanak egiteko erabili ahal izango du (ezkaratzaren margoketa, ezkaratzako leihoen garbiketa berezia...), eta udalak izango du eskumena erabakitzeke lan horiek noiz egin.

24.- Artikulua: Aseguru poliza izenpetzeko betebeharra

24.1- Etxebizitzaren maizterrak kontratua sinatu eta lehen hilabeteko epean zuzkidura apartamenturen edukiarekin aseguru poliza bat izenpetu eta udaletxera ekarri beharko du. Poliza hau ez izateak etxebizitzatik kanporatzeko erabakia hartzea ekarriko du.

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Poliza horrek etxebizitza eta erantsiak izan ditzakeen kalteak babestuko ditu.
Erantzunkizun zibila kontratatu beharko da:

24.1.1.- Edukiari dagokionez 10.000 eurotako edo gehiagoko kapital aseguruarekin

24.1.2- Erantzunkizun zibilari dagokionez 150.253,03 eurotako

24.2.- Poliza aseguruaren justifikantea urtero aurkeztu beharko da udaletxean uztailean zehar.

25.- Artikulua: Etxebizitzaren instalazio orokorrak eta elementuen zaintza

25.1.- Maizterrak etxea eta bertako zerbitzuak behar bezala mantentzeko obligazioa du. Ondorioz, erabiltzeko eskubideak irauten duen denboran, etxebizitzan erabilera desegoki edo okerrarengatik eman daitezkeen narriadurak bertako maizterrak konpondu eta ordaindu beharko ditu.

25.2.- Etxebizitzetako egituraren, estankotasunaren, bizigarritasunaren eta segurtasunaren arloei dagokien mantentze lanak aldiz Ibarra udalaren ardura izango dira. Sukaldeko elektrogailuen konponketa ere udalaren kargura izango da, hala ere, izandako matxura erabilera okerrarengatik bada maizterren kargura izango da.

25.3.- Etxeko instalazio orokorrak eta gainerako elementu komunak errespetatzeko obligazioa izango du erabiltzaileak, toki komunitakoak zein bere ardurapean daudenetakoak, bere etxebizitzan edo etxebizitzatik kanpo dauden kontuan hartu gabe. Instalazio eta elementu horiek behar bezala erabili beharko ditu, kalteak gerta ez daitezen ahaleginduta.

25.4.- Etxearen erabileran eta gainerako maizterrekiko harremanetan behar den arreta erakutsi beharko du, eta Ibarra Udalaren aurrean erantzun beharko du egindako arau-hausteen eta eragindako kalteen arduragatik.

25.5.- Etxebizitza eta bere jabetzako beste instalazioak ondo zaintzea, eraikinari, komunitateari eta beste etxebizitzetako maizterrei kalterik ez eragitea ezinbesteko betebehar bat izango da. Halaber, bere arduragabekeriagatik edo bere ardurapean dauden pertsonen arduragabekeriagatik eragin ditzakeen kalteak ordainduko ditu.

25.6.- Ibarra udalak erabiltzaileen ardura diren eraikinaren mantenu obrak egitea, agindu diezaieke maizterrei. Maizterrek ez badituzte lan horiek egiten, Ibarra udalak bere kontura egin ahal izango ditu, eta ondoren, eragindako gastua kobratu ahal izango die maizterrei.

25.7.- Ibarra udalak ikuskatze jarraituak egiteko aukera izango du etxebizitzetako funtzionamendua kontrolatu eta erabiltzaileek beraien obligazioak betetzen dituzten ikuste aldera (berari baitagokio higiezinaren erabilera eta mantenuari buruzko baldintzak

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ezartzea. baita bertako elementu, ondasun eta zerbitzu komunena ere). Erabiltzaileak obligazioa izango du Ibarra udalari etxebizitzan sartzeari baimentzea eta ezin izango du ikuskatze hori oztopatu.

Etxebizitzaren maizterrearekin adostutako orduan udalari sarrera eskubidea ukatuko balio edo adostasunik ez balego, udalak edozein unetan sartzeko eskubidea izango du bere betebeharrak eta etxebizitzaren funtzionamendu egokia kontrolatzeko.

26.- Artikulua: Etxebizitzan beharrezko obrak eta sarrera baimentzea

Ibarra udalak eraikinean edo komunitatean beharrezko diren obrak egitea erabakiko balu, eskuduntza osoa izango du eta maizterrek ezingo dituzte obra horiek oztopatu.

27.- Artikulua: Etxebizitza hustu eta egoki uztea kontratua amaitzerakoan

27.1.- Kontratua amaitzen denean, erabiltzaileak etxebizitza utzi egin beharko du eta bertan dauden elementuak atera egin beharko ditu.

27.2.- Kontratua amaitzen den azken egunerako etxea hutsik eta garbituta itzuli beharko da.

27.3.- Kontratu epea amaitu aurretik etxebizitza utzi nahi izanez gero, uzteko eskaera orria aurkeztuko da udaletxean. Eskaera aurkeztzen den hilabetean bizitokia utzi nahi izanez gero, hilabetearen lehen hamabostaldian aurkeztu beharko da.

27.4.- Kontratu epea amaitzerakoan, eta etxebizitza hutsik dagoela, udal teknikariak ikuskaritza egingo du eta ondorengo baldintzak egiaztatuko ditu.

- Altzariak erretiratuta.
- Jarrirako kuadro, poster, altzari eta antzekoak paretetatik kenduta eta egindako zuloak tapatuta.
- Zeramika duten paretetan euskarriak edo baldak jartzeko zuloak egin badira, bertan utzi beharko dira elementu horiek,
- Paretetan altzarien kokapenengatik edo egon daitezkeen aztarnak pinturarekin erreparatuko dira.
- Komuneko dutxaren sumideroa garbituta.
- Sukaldeko altzari eta elektrogailuak garbituta eta funtzionatzen dutela egiaztatuta.
- Sukaldeko erauzgailuaren filtroa garbituta.
- Trastelekua hutsik eta garbi

27.4.- Txostena, aldekoa, baldintzatu edo kontrakoa izan daiteke eta horrela jakinaraziko dio udalak maizterrari.

27.4.1.- Baldintzatuta edo kontrakoa izanez gero idatziz jakinaraziko dira arrazoiak eta konponketak egiteko epea zehaztuko da.

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

27.5.- Aldeko txostena jasota, bizitokiaren abal itzulketa tramitatuko da Gizarte Zerbitzuetako departamentutik ondorengo baldintzak bete direla egiaztatuko delarik abala itzul ahal izateko:

27.5.1.- Argindarraren kontratua martxan egotea.

27.5.2.- Azken hilabeteko gastuak ordainduta (Itace, komunitatea,).

27.5.3.- Giltzen kopia guztiak itzultzea: Ezkaratza, buzoia, trastelekua, bizitokiaren giltzak eta garajearen mandoak.

28.- Artikulua: Etxebizitzan bizi diren pertsona denen errentak aurkeztea

28.1.- Maizterraz gain etxebizitza horretan modu iraunkorrean pertsonaren bat bizi bada (diru sarrerak dituen pertsona izan behar da), maizterrak obligazioa izango du Ibarra udalari egoera horren berri emateko.

28.2.- Egoera honen berri ez emateak Ibarra udalak maizterra etxebizitzatik kanporatzea ekar dezake, 13.3 artikuluaaren prozeduraren baitan.

29.- Artikulua: Etxebizitzan suerta daitezkeen egoera berri eta berezi guztien berri ematea

29.1.- Maizterrak obligazioa izango du etxebizitzan suerta daitezkeen egoera berri eta berezi guztien berri emateko udalari

29.1.1- Elkarbizitza unitatean aldaketarik egoten bada (seme-alaben jaiotza adibidez) udalari horren berri emango zaio eta nahiz eta bikotea ez ezkondua izan edo bikote bezala aitortuak ez egpm, egoera berri hori kontuan izango da eta errentan eragina izango du.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

VIII. KAPITULUA: ZUZKIDURA-ETXEBIZITZETAKO ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

30.- Artikulua: Etxebizitza, garajea eta trastelekua erabiltzeko eskubide osoa.

30.1.- Erabiltzaileak esleitutako etxebizitza, garajea eta trastelekua bereziki erabiltzeko eskubidea izango du.

30.2.- Eraikinaren elementu, ondasun eta zerbitzu komunak erabiltzeko eskubide osoa izango du erabiltzaileak.

30.3.- Ibarra udalak eskubidea izango du eraikinean dauden elementu edo zerbitzu batzuk bereziki beste hirugarren batzuei utzi, arrendatu edo hauen aldera gordetzeko. Eraikinean suertatzen diren egoera bereziei konponbidea emateko edo eraikinaren kudeaketarako ezinbestekoa denean, modu arrazoituan, udalak elementuen erabileran erabakiak hartzeko aukera izango du ez-ohizko egoerei aurre egiteko.

IX. KAPITULUA: KALERATZEKO ARRAZOIAKETA KALERATZE PROZEDURA

31.- Artikulua: Etxebizitzetatik kaleratzeko arrazoiak.

31.1.- Etxebizitzetako maizterrek euren obligazioak larriki betetzen ez badituzte, kontratua balio gabetu egingo da eta bertan bizi direnak kaleratuko egingo dira.

31.2.- Ez betetze larritzat jotzen dira:

31.2.1.- Datuak ezkutatzea edo bizitokia emateko arrazoi izan ziren eskainitako datuak gezurrezkoak izatea (etxebizitzan bizi diren kideak ezkutatzea eta hauen diru sarrerak ezkutatzea)

31.2.2.- Etxebizitza ohiko etxebizitza bezala ez erabiltzeak ohiko bizitoki izateari utzi diola joko da. Hiru hilabete jarraituz bertan bizi ez bada, justifikatutako arrazoirik dagoenean izan ezik.

31.2.3.- Zuzkidura-etxebizitza eta garajea hirugarren bati alokatzea edo uztea.

31.2.4.- Zuzkidura-etxebizitzan jarduera debekatuak, gogaikarriak, osasun-gaitzak, kaltegarriak edo arrisku-tsuak egitea.

31.2.5.- Zuzkidura-etxebizitzan edo eraikinean engainuzko kalteak egitea edo eragindako kalteak ez konpontzea.

31.2.6.- Etxean, bere instalazioetan edo zerbitzuetan, Ibarra udalaren baimenik gabe obrak egitea.

31.2.7.- Kanona 2 hilabetetan ez ordaintzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 31.2.8.- Apartamentuen kasuetan Komunitatearen gastuen, kontsumoen fakturaren edo kalteen ordainketa ez egitea 2 hilabetetan.
- 31.2.9.- Lokalen kasuetan Komunitatearen gastuak edo kalteen ordainketa ez egitea 2 hilabetetan.
- 31.2.10.- Kontsumoen fakturaren ordainketa atzerapenarekin egitea bi aldiz. Hau da, bi aldiz ordainketak hileko lehen 15 egunetan ez egitea.
- 31.2.11- Ibarra udalak egin behar dituen jarraipenak oztopatzea.
- 31.2.12- Debekaturik dauden, erreglamentu honetan V. kapituluaren xedaturikoak, ekintzak burutzea

32.- Artikulua: Etxebizitzetik kaleratzeko prozedura

32.1.- Kaleratzearen erabakia: alderdi politikoak eta teknikariak entzun ondoren, Alkate Dekretu bidez ebatziko da.

32.2.- Kaleratze administratiboa: honen ondorioz, udalak maizterra apartamentutik kanporatzeko agindua emango du.

32.2.1.- Aldez aurretik, eta erabakia exekutatu aurretik, interesatuei entzute formala egiko aukera emango zaio, eta ondoren erabakia exekutatu da.

32.2.2.- Maitzerra etxebizitzatik borondatez kanporatzen ez den kasuetan udalak dagokiozkion neurriak hartuko ditu erabakia betearazteko.

32.3.- Obligazioen ez betetze larriak egin dituztelako kanporatuko dituzten pertsonak, Ibarra udalak sustatutako zuzkidura-etxebizitza eta babespeko etxebizitzaren onuradun izateko eskubidea galduko dute.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Erreglamentu hau indarrean jartzen den egunean esleitu diren alokairu kontratu denak araudi honetara egokitu behar dira eta ondorioz kontratu denei araudi hau aplikatuko zaie.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Erreglamendu hau indarrean jartzen den egunean, 2013ko apirilaren 5ean indarrean sartu zen Erreglamentua eta 2013ko otsailaren 6ko ordenantza indargabetzen dira.

2018/05/31



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

AZKEN XEDAPENA

Erreglamentu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERANSKINA. APARTAMENTU TIPOAREN ARGAZKIAK



Sukaldea eta sarrera



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria



Egongela


2018/05/31

60



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hegoaldera ematen duten etxebizitza tipo baten oin planoak




2018/05/31

61



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Iparraldera ematen duen apartamentu baten oin plano



2018/05/31

62



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018/05/31

63